

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Aita Villasante Udal Euskaltegia (Gernika-Lumo)

#### Euskara irakasleen lan-poltsa osatzeko oinarriak (Akatsen zuzenketa)

Gernika-Lumoko Aita Villasante Udal Euskaltegia Herri Erakundearen presidentek irakasleen lan-poltsa osatzeko lehiaketa arautuko duten oinarriak onartu zituen 2022ko ekainaren 30ean.

Ondoren, oinarri horietan antzemandako akatsak zuzendu dira.

Gernika-Lumon, 2023ko otsailaren 13an

Aita Villasante Udal Euskaltegia Herri Erakundearen presidentea

Iñigo Magunagoikoetxea Agirre

**AITA**  
Udal  
Euskaltegia  
Herri Erakundea  
**VILLASANTE**

AITA



VILLASANTE

## **GERNIKA-LUMOKO AITA VILLASANTE UDAL EUSKALTEGIAN JARDUNGO DUTEN EUSKARA IRAKASLEEN LAN-POLTSARAKO MERITU-LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK (Akatsen zuzenketa)**

### **Lehenengoa.- Deialdiaren xedea.**

Hauxe da deialdiaren helburua: Gernika-Lumoko Aita Villasante Udal Euskaltegiko euskara irakasleen lan-poltsa sortzea.

Hautaketa-prozesua meritu-lehiaketa sistema bidez bideratuko da.

Lan-poltsa hau indarrean egongo da bestelako deialdi, oposizio edo lehiaketa-oposizioen bat egin arte.

### **Bigarrena.- Lanpostuaren ezaugarriak.**

Lanpostuaren izena: Euskara irakaslea

Eskala: A2 taldekoa

Funtzioak: Lan-poltsa honen bidez, alde batetik, ikasleen eskariari erantzuteko euskarazko ikastaroak emango dituzten irakasleak kontratatuko dira; bestetik, gaur eguneko irakasle titularren ordezkotako gisa jardungo dute, lanerako aldi baterako ezgaituak egoteagatik bajaran daudenean edo beste arrazoiren batengatik lanera etortzen ez direnean.

### **Hirugarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.**

Hautaketa-prozesuan onartua izateko eta, hala badagokio, meritu-lehiaketan parte hartu ahal izateko, hurrengo baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

a) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango du, halaber, Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; halaber, beraien ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina haien kontura bizi direnak.

AITA



VILLASANTE

Espanian legezko bizilekua duten atzerritar guztiak ere sartu ahal izango dira administrazio publikoetan lan-kontratuko langile gisa.

b) Hamasei (16) urte edo gehiago izatea, eta adinagatiko derrigorrezko erretiro adinera iritsi gabe egotea.

c) Lanpostuari dagozkion zereginak betetzeko akats fisiko edo psikikorik ez izatea.

d) Edozein herri administrazioaren zerbitzutik diziplina-espedita bidez baztertuta ez egotea edo zeregin publikoak betetzeko gaitasuna galduta ez izatea.

e) Ezgaitasun edo bateraezintasunaren legezko kariatik ez egotea.

Hautaketa-prozesu honetan parte hartu ahal izateko, azaldutako baldintzez gain, eskaerak aurkezteko jarri den epea bukatu aurretik, izangaiek ondorengoa dutela egiaztatu beharko dute:

- 1) Unibertsitateko diplomatura edo gradu baten jabetza izatea, edo HABEK Euskaltegietako irakasleak homologatzeko egin zituen probak gaindituta izatea.
- 2) Laugarren hizkuntza eskakizuna edo horren baliokide baten jabe izatea. Era berean, onartu egingo dira hirugarren hizkuntza eskakizuna edo horren baliokidearen jabe direla egiaztatzen duten titulazioen jabe direnak.

### **Laugarrena.- Eskaerak aurkeztea.**

Aita Villasante Udal Euskaltegiko bulegoan doan eskaintzen den eskabide-orri eredu ofiziala erabili beharko dute eskatzaileek. Eskabide hori Udal Euskaltegiko helbidean ere eskuragarri izango dute: [www.gernikakoudaleuskaltea.eus](http://www.gernikakoudaleuskaltea.eus)

Eskabide-orriarekin batera honako hauek aurkeztu beharko dituzte izangaiek:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo, atzerriko lehiakideen kasuan, nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen dituen dokumentua.
- b) Laugarren hizkuntza eskakizuna edo hirugarren hizkuntza eskakizuna duela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia, edo horren baliokide titulua.
- c) Diplomatura edo Gradu akademikoaren fotokopia.
- d) Merituak egiaztatzeke agiriak.

AITA



VILLASANTE

Eskabideak, behin egokiro bete ostean, Aita Villasante Udal Euskaltegiko idazkaritzan (Artekalea 8, 1.a) aurkeztuko dira, hamar (10) egun balioduneko epean, eta epe horri hasiera, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo biharamunean emango zaio.

Eskabideak aurkez daitezke, halaber, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 16.4 artikuluan zehazten duen eran.

Izangaiek oinarrietan eskatutako baldintza guztiak eta horietako bakoitza betetzen dutela adierazi beharko dute, beti ere eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunerako.

Lehiaketa-fasean baloratu beharreko merituei dagozkien datuek egokiro egiaztatuak izan beharko dute. Ez dira baloragarriak izango eskariak aurkezteko epean egiaztatzen ez diren merituek.

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeak berekin dakar eskarian jasotako datu pertsonalak tratatzeko onespena, hau da, behin-behineko eta behin betiko emaitzak iragarki-oholean eta web orrian argitaratzeko erabiliko diren datuak tratatzeko. Era berean, eskaera aurkezteak esan nahi du berriazko baimena eman dela beste administrazio publiko batzuek, haien langile-premiak betetzeko, langileen zerrendak eskatzen dituztenean norberaren datuak emateko. Ez da izangaien eskaria onartuko beren datuak erabiltzeko baimenik eman ezean. Datuak ikusi, aldatu, zuzendu edo ezabatzeko eskubideaz baliatu nahi izanez gero, dei egin duen organora jo beharko dute.

2022ko irailaren 5eko deialdian eskabidea aurkeztu zuten hautagaiek ez dute berriro aurkeztu beharko, salbu eta, dagoeneko, aurkeztutakoez gain, beste agiri batzuk aurkeztu nahi badituzte.

### **Bosgarrena.- Izangaiak onartzea.**

Eskariak aurkezteko epea amaitutakoan, onartutako eta kanpo utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartu eta argitaratuko du Gernika-Lumoko Aita Villasante Udal Euskaltegia Herri Erakundearen batzorde buruak, Udal Euskaltegiko iragarki taulan eta [www.gernikakoudaleuskaltegia.eus](http://www.gernikakoudaleuskaltegia.eus) helbidean.

Aipatu zerrendan, kanpo utzitakoen artean agertzen den izangaiak hamar (10) egun baliodun izango ditu, iragarki taulan argitaratu ondorengo biharamunetik hasita, bazter uztea eragin duten akats edo omisioak zuzentzeko.

**AITA**



**VILLASANTE**

Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrenda, automatikoki, behin betikoa dela ulertuko da. Erreklamaziorik egonez gero, horiek onetsiak edo ezetsiak izango dira, beste ebazpen baten bidez, bost (5) eguneko epe barruan.

### **Seigarrena.- Kalifikazio Epaimahaiaren osaketa, eraketa eta jarduketa.**

Kalifikazio Mahaia Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 31. artikulua, uztailaren 6koa, agindutako moduan eratuko da. Epaimahaikideek deialdi honetan parte hartzeko eskatzen den maila bereko edo goragoko titulazio akademikoa izan beharko dute.

Epaimahaia honela osatuko da:

**Presidentea:** Aita Villasante Udal Euskaltegiko zuzendaria.

**Epaimahaikideak:** Aita Villasante Udal Euskaltegiko irakasle bat.  
HABEk proposatutako bokala.

**Idazkaria:** Aita Villasante Udal Euskaltegiko Gobernu Batzordeko idazkaria.

Epaimahaiak eskumena izango du meritu-lehiaketa prozesuan sor litezkeen zalantzen gainean erabakiak hartzeko.

Epaimahaia ezingo da eratu, hori osatzen duten kideetatik, kideen erdia baino gehiago presente ez badago. Edozein modutan, presidenteak eta idazkariak bertan egon behar dute derrigor. Erabakiak boto-kopuruaren gehiengoz hartuko dira, eta, berdinketaren kasuan, presidentearen botoak erabakiko du.

Epaimahaiaren osaketa jendaurrean jarriko da Aita Villasante Udal Euskaltegiko iragarki taulan eta [www.gernikakoudaleuskaltegia.eus](http://www.gernikakoudaleuskaltegia.eus) helbidean, onartuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenarekin batera.

Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik, idazkariak ez baitu boto emateko eskubiderik izango.

Oinarri hauetan ezarri ez den guztirako, Epaimahaiak ahalmen osoa izango du sor litezkeen zalantzak argitu, eta deialdiaren funtzionamendu egokia bermatzeko erabakiak hartzeko.

AITA



VILLASANTE

Epaimahaikideak errefusatzekotan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak dituen 23. eta 24. artikuluek xedatzen dutena jarriko da indarrean.

### **Zazpigarrena.- Lehiaketa fasea.**

Epaimahaiak hurrengo merituak baloratuko ditu, baldin eta eskariak aurkezteko epe barruan alegatuak izan badira, eta oinarri hauetan xedatutakoaren arabera egokiro egiaztatuak izan badira.

#### **1.- Irakaskuntzako esperientzia. Gehieneko puntuazioa, 20 puntu.**

Euskaltegiko irakasle-lanetan emandako 330 ordu lektibo bakoitzeko puntu 1, eta hortik gorako zein beherako orduei proportzioan dagokien puntuaketa ezarriko zaie. Esperientzia hori HABE erakundeak egiaztatu beharko du.

#### **2.- Prestakuntza. Gehieneko puntuazioa, 9 puntu.**

- 3 puntu, Euskal Filologiako Gradua edo Lizentziatura izateagatik.
- 2 puntu, Euskal Filologia adarreko Irakasle-Ikasketa titulua izateagatik.
- Puntu 1, Irakasle-Ikasketetako Diplomatura edo Gradua tituluagatik (Euskal Filologia adarrekoa izan ezik).
- Puntu 1, Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterra edo horren baliokidea izateagatik.
- Puntu 1, Laugarren mailarako Irakasleen Gaikuntza ikastaroaren ziurtagiria izateagatik.
- HABEko aztertzaile lanetan jarduteagatik deialdi bakoitzeko 0,2 puntu (gehienezko puntuazioa, 2 puntu). Hori HABEk egiaztatu beharko du.
- Helduei euskara irakastearekin zerikusia duten ikastaroak HABEk, AEK-k, LABAYRUK, EHUK, UNEDek, UEUK edo IVAPEk emanak. 2006ko urtarriletik aurrera egindakoak baino ez dira kontuan hartuko (gehienezko puntuazioa, 2 puntu).
  - a) 10 ordu baino gutxiagoko ikastaroak: 0,2 puntu.
  - b) 11tik 50 ordura bitarteko ikastaroak: 0,3 puntu.
  - c) 50 ordutik gorako ikastaroak: 0,5 puntu.

Prestakuntza-ikastaroetako egiaztagiriek horien iraupena zehazten ez badute, ez dira kontuan hartuko.

Aipatutakoez gain, ez da beste agiririk edota ikastarorik baloratuko.

AITA



VILLASANTE

### **3.- Beste batzuk. Gehienezko puntuazioa, puntu 1.**

0,2 puntu, glotodidaktika, euskalduntze eta alfabetatze gaiei buruzko argitalpenen bakoitzarengatik.

#### **Zortzigarrena.- Sailkapena eta merezimenduen balorazioa.**

Merituei buruzko kalifikazioa amaitutakoan, Epaimahaiak jendaurrean jarriko du iragarki taulan hautaketa-prozesuan onartuak izango liratekeen izangaien zerrenda, merezimenduen kalifikazioarekin batera, eta horiek lan-poltsa osatuko dute. Ondoren, Aita Villasante Udal Euskaltegiako iragarki taulan eta [www.gernikakoudaleuskaltegia.eus](http://www.gernikakoudaleuskaltegia.eus) helbidean jarriko da jendaurrean, lehentasun hurrenkeraren arabera.

Lehentasun-hurrenkera finkatzeko, irizpide hauek izango dira kontuan:

1. Lehentasuna izango dute laugarren hizkuntza eskakizuna (edo baliokidea) egiaztatuta dutenek. Erreserba zerrenda bat osatuko da hirugarren hizkuntza eskakizuna (edo baliokidea) dutenekin.
2. Meritu-balorazioan puntuaziorik handiena lortu dutenak.

Prozesuko sailkapen-ordena aurkeztutako merituen balorazioan lortutako puntuen batuketak emango du. Berdinketa kasuan, hurrenkera irizpide hauen arabera izango da:

1. Euskaltegiako irakasle-lanetan ordu lektiboetan kopururik handiena egiaztatu duen izangaiaren alde.
2. Helduei euskara irakastearekin zerikusi duten ikastaroak direla-eta, puntuaziorik altuena lortu duen izangaiaren alde.
3. Arduraren bat izan duenaren alde (zuzendari, idazkari akademiko...).
4. Oraindik ere berdinketak jarraituz gero, zozketaz erabakiko da.

#### **Bederatzigarrena.- Zerbitzuak eskaintzea.**

Hautatutako izangaiak lan-zerbitzuak eskaintzeko deituak izaten direnean, Gernika-Lumoko Aita Villasante Udal Euskaltegiak eskatu ahal izango die alegatutako baldintzak edo inguruabar pertsonalak egiazkoak diren egiazta ditzatela.

**AITA**



**VILLASANTE**

## **Hamargarrena.- Errekurtsoak.**

Oinarri hauetan xedatu ez den guztiari dagokionez, Epaimahaiak ahalmena du sortzen diren zalantzak argitzeko eta hartu beharreko erabakiak hartzeko, hautaketa-prozesua behar bezala egite aldera.

Deialdia, oinarri-arauak eta haietatik eta Epaimahaiaren jardueretatik datozen egintza administratiboak inpugnatu egin ahal izango dituzte interesdunek, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epeetan eta moduan. Era berean, interesdunek deialdi honetatik eratorritako administrazio-ekintzen aurka egin ahal izango dute, Administrazio Prozedura Erkidearen araudiak ezarrita daukanaren arabera.

## **Datuen babesa**

Aita Villasante Udal Euskaltegian ematen edo sortzen diren datu eta erregistro guztiak Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritako jarraibide eta arauen mende egongo dira.

Datu pertsonalak erabiliko dira hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak eta ondoriozko lan-poltsak kudeatzeko, interesdunak emandako baimena eta tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak oinarri hartuta, hurrenez hurren, DBEOren 6.1 artikulua a) eta e) letretan jasotakoak.

Parte hartzeko eskabidean, izangaien berariazko baimena beharko da beren datuak beste herri-administrazio batzuei lagatzea onartzeko, 14.3 oinarrian aurreikusitako ondorioetarako. Datu-lagapen horren helburu bakarra eta eskusiboa izango da beste herri-administrazio horien enplegu-eskaintzak jasotzea, legez aurreikusitako baldintzetan, eta ulertuko da, izangaiak berariaz onartzen ez badu, lagapenaren aurka dagoela.

Izangaiak emandako datu pertsonalak fitxategi batean sartuko dira. Fitxategi horren helburua hautaketa-prozesua kudeatzea izango da, bai eta prozesu horretatik eratorritako lan-poltsetan ere. Fitxategi honen arduraduna Aita Villasante Udal Euskaltea da eta bere aurrean erabili ahal izango dira datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta eramateko eskubideak.

Aita Villasante Udal Euskaltea Herri Erakundearen presidentea

Iñigo Magunagoikoetxea Agirre